



Berrizbeitia (-a) etxebizitza

Aldaerak:
Ahozkoa:



43° 10' 8"

2° 34' 34"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Zalduerreka ibarrera begira aurkitzen dugun baserri honi buruzko lehen aipuak XVII. mendekoak dira, hots, *Berrizbeitia* (1669 BAHF, A1263/32), nahiz eta jakin baserria 1572. urtean egindakoa dela. Bestela, ez du aldaketa nabarmenik eza-gutu izen honek ordutik ona, dokumentazio guztian izen bera aurkitzen baitugu, grafian izandako aldaketa txikiak izan ezik, adibidez: batzuetan banatuta agertzen da, hau da, *Verriz Veytia* (1745, Bizkaiko su-errol-dak), eta, beste batzuetan, *V-z* idatzia *B-z* idatzi beharrean.

XIX. mende bukaeratik aurrera, forma jarraitua eta B-z idatzitakoak nagusitzen dira, hau da, *Berrizbetia* (1910, BUA, RU). Berriztarren artean, oso ezaguna den baserri honen ahozko forma *Berrisbéitti* dugu.

Baserri etxe ederra, bikaina, oso koloretsua, erabilitako material desberdinak direla medio. Leihoburu bateko datak besterik pentsarazi dezakeen arren, XVII. mendean hedatutako etxe mota da, oso antzekoa den *Isuntza* (**Ikus Isuntza**) frogatu daitekeen moduan. Hiru

“... la casa principal llamada Berrizveitia, sus casas accesorias y pertenecidos radicantes en la Cofradía de Eitua barrio del Sur de la Anteiglesia de Berriz... la casa principal... consta de dos viviendas: la de la izquierda contiene con su piso llano zaguan, cocina, un dormitorio y cuadras; en el piso principal dos dormitorios y pejar y encima camarote. La otra habitación se compone de zaguan, cocina y cuadras en el piso llano, tres dormitorios y pejar; en el piso principal, y encima camarote. Ocupa su planta solar trescientos sesenta metros y noventa y tres decímetros cuadrados...”
DJE 3/178 or. (1877)

toponimia

Berriz izena jatorriz ez zen lur eremu zabal bat, udalerrria gaur egun, baserri edo gune txiki bat baizik. Hori da beste udal askoren kasu bera, Getxo, Munitibar, Zornotza etab. *Berriz* izenak zer esan nahi duen, berriz, ez dakigu. Euskal Herrian ohikoak dira -iz amaiera duten elku izenak, ekialdean, Nafarroan, -itz. Amaiera honek jabetza adiera du eta aurrean pertsona izena izaten da. Ondorioz pentsatu behar dugu izen honen aurrean jaun baten izen dugula. Berrizbeitia etxe izenean behetia dela esaten zaigu.



Berriz Irudian

gorputzez osatua, beheko solairuko erdian atarte zabala du, molduraz atondutako egurrezko dintel baten babesean, eta aldamenetan, harrizko gorputzak. Bigarren solairua eta ganbara egurrezko egituraz egin ziren, tarteko adreiluzko hormekin. Bitxia da ikustea adreilu grapatuak erabili zituztela haritzeko egurrak estaltzeko. Azken urteotan berriztatze sakon bat egin diote eta fatxada zerbait aldatu dute. Hala, beheko partea berdin samar utzi dute, baina goikoetan leihoak lekuz aldatu edo zabaldu egin dituzte, eta ganbarako balkoi irtena, aldenik alde zeukana, kendu egin dute, barnekoa egiteko, frontiseko egurren egitura aprobetxatuz. Txori-tokiekin ere antzera jokatu dute. Bukatzeko, beheko solairuari begiratuko diegu eta bertan dagoen inskripzioaren inguruan

ere pare bat berba esatea tokatzen da. Beheko pisuko harrizko bi gorputzak zeharo desberdinak dira. Bata oso harlandu onaz egina bada, hormak eta leihoen moldurak barne; bestean kalitate oneko harria kantaletarako eta leihoa taiutzeko utzi zuten, hormetan harlangaitza usatu baitzuten. Argi dago bi momentu desberdinetan burututako eraikuntza izan zela, zaharragoa aprobetxatuta egindakoa. Eta hau egitea agindu zuten jabeek, kartela manierista batean idatzita, inskripzio bat utzi zuten leihoburuan: Gurutzearen eta Jesusen izenaren anagramaren albo banatan, “*ESTA - OBRAIZIERON - AZER / BARTOLOMEDEBERIZ / EMARIA - SU - MUGER - 1572*”.